



2004ko martxoaren 15an egindako Gobernu Batzordean onartua.

ALDAKETA: 2007KO MARTXOAREN 5KO TOKIKO GOBERNU BATZARREAN ONARTUA
MODIFICACIÓN: APROBADA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EL 5 DE MARZO DE 2007

ALDAKETA: 2007KO MARTXOAREN 5KO TOKIKO GOBERNU BATZARREAN ONARTUA
MODIFICACIÓN: APROBADA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EL 5 DE MARZO DE 2007

ESPAZIO PUBLIKOEN ERABILERA ERREGULATZEKO ARAUDIA

1.- Xedea.

Araudi honen helburua da Urnietako espazio publikoen erabilera erregulatzeko:

- Lekaio kultur etxeko bilera eta hitzaldietarako gelak.
- Udalaren Errekaldeko lokala.
- Udal pilotalekua
- Udal kiroldegia
- Udal aterpea

2.- Eskerak.

Goian adierazitako espazio publikoak erabiltzeko eskaera egin ahal izango dute pertsona fisiko edota juridiko guztiek, betiere hitzaldi, jardura eta bestelako ekintza horiek **urnietarrentzat badira**.

Espazio publikoak erabiltzen utziko da, **lehentasun ordena** honen arabera:

- 1.- Udalaren sailek antolatutako jarduerak.
- 2.- Udalaren sailekin batean, kultura eta kirol arloko herriko gazte eta hezkuntza elkarteek antolatutako jarduerak.

NORMATIVA REGULADORA DE LA UTILIZACIÓN DE LOS ESPACIOS PÚBLICOS

1.- Objeto

Es objeto de la presente normativa regular la utilización de los espacios públicos existentes en Urnieta:

- Salas de reuniones y conferencias de la Casa de Cultura Lekaio.
- Local municipal de Errekalde
- Frontón municipal
- Polideportivo municipal
- Albergue municipal

2.- Solicitudes.

Podrá presentar la correspondiente solicitud para la utilización de los espacios públicos arriba referidos cualquier persona física y / o jurídica siempre y cuando se trate de conferencias, actuaciones...y demás actividades de cualquier otra índole **que vayan dirigidos a los urnietarras**.

La concesión de la utilización de los espacios públicos se realizará de acuerdo con el siguiente **orden de prioridad/preferencia** :

- 1º.- Actividades organizadas por los departamentos municipales.
- 2º.- Actividades organizadas por colectivos culturales-deportivos de juventud y educación del municipio en colaboración con los



3.- Astialdi, gizarte, kultura eta kirol arloko herriko gazte eta hezkuntza elkarteak.

4.- Herriko beste edozein elkarte.

5.- Urnietakoak ez diren elkarteak.

6.- Herriko talde politikoak eta hauteskunde plataformak (gehienez 3 eskaera urtean, hauteskunde kanpainan aurkeztu ditzaketenez gain)

Hauteskunde kanpainan, herriko talde politikoek eta hauteskunde plataformek kultur etxeko areto balioaniztuna erabili ahal izango dute jardun politikoetarako, betiere astebete lehenago eskatzen badute (hauteskunde kanpainetan, kultur etxea erabiltzeko aurkezten diren eskaeren artean lehentasuna izango dute herriko talde politikoek eta hauteskunde plataformek.)

3.- Eskaera orria eta aurkezteko modua.

Eskaera orri bakar bat beteko da, udal bulegoetan hartuko dena. Eskaera horrekin batera, bete beharreko dokumentuak emango zaizkie eskatzaileei.

4.- Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak Urnietako udaletxeko sarrera erregistroan aurkeztu beharko dira, gutxienez aurrerapen hauekin:

- **4.a. 15 egun natural, baldin eta** hitzaldiak, bilerak edota gisa horretako jarduerak badira, eta Lekaio kultur etxeko geletan egitekoak badira, astelehenetik ostiralera, etxea zabalik dagoenean.
- **4.b. 30 egun natural, baldin eta** jaialdiak, jolas jarduerak, ikuskizun publikoak eta gisa

departamentos municipales.

3º.- Asociaciones de tiempo libre, socio culturales, deportivas de juventud y educación del municipio

4º.- Cualquier otra asociación municipal.

5º.- Asociaciones de fuera de Urnieta.

6º.- Grupos políticos y plataformas electorales locales (con un máximo de tres solicitudes al año, sin perjuicio de las solicitudes que puedan realizar durante la campaña electoral)

Durante las campañas electorales los grupos políticos y plataformas electorales locales podrán utilizar la sala polivalente de la Casa de Cultura para celebrar actos políticos siempre y cuando lo soliciten con una semana de antelación. (durante las campañas electorales tendrán prioridad para el uso de la Casa de Cultura las solicitudes presentadas por los grupos políticos y las plataformas electorales locales.)

3.-Modelo y presentación de solicitudes.

Se formalizará un único modelo de instancia que deberá ser recogido en las dependencias municipales. Junto con esta solicitud se les entregarán a los solicitantes los documentos pertinentes que deberán cumplimentar.

4.- Plazo de presentación de solicitudes

Las solicitudes tendrán que presentarse en el Registro de entrada del Ayuntamiento de Urnieta con una antelación mínima de :

- **4.a. 15 días naturales cuando se trate de actividades tales como** conferencias, reuniones y/o actividades de la misma índole que se celebrarán siempre en las diferentes aulas de la Casa de Cultura Lekaio de lunes a viernes respetando los horarios de apertura y cierre del centro.
- **4.b. 30 días naturales cuando se trate de actividades tales como** festivales, actividades recreativas y/o



horretako jarduerak badira. Jarduera horiek udal pilotalekuan, kiroldegiko pista edota Sarobe Arte Eszenikoen Gunean egin ahal izango dira, betiere udalaren espazio horiek libre badaude, jardueren helburuak bat badatoz espazioaren filosofiarekin eta espazio horiek dituzten tarifak ordaintzen badira.

- **4.c. 7 egun natural**, baldin eta eskaera herriko talde politikoek eta hauteskunde plataformek egin badute; horiek Lekaio kultur etxeko gela desberdinak erabiliko dituzte, astelehenetik ostiralera, etxea irekitzeko eta ixteko ordutegia betez.

5.- Ebazpena.

Eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, teknikari eskudunek baimenaren proposamena igorriko diote Tokiko Gobernu Batzarrari.

6.- Jakinarazpena.

Hartutako ebazpena behar bezala jakinaraziko zaio eskaera egin duen pertsona fisiko edo juridikoari, 5 egun naturalen barruan 4.a atalean bildutako eskaerak badira, eta 20 egun naturalen barruan 4.b. atalean sailkatutako jarduerak badira.

Ebazpenean **berme** bat eskatuko da, eta eskatzaileak berme hori ordaindu beharko du horretarako ezarritako kontu korrontean. Zenbatekoa kasuan kasu zehaztuko da, eskatutako espazio publikoan egitekoak diren jarduera nolakoa den eta noiz nola egingo den (lokalaren edukiera, zenbat jenderentzat...). Horretaz gain, ikuskizunaren erregimena eta baldintzak ezarriko dira: ordutegia, tokiak eta abar.

espectáculos públicos...y para cualquier otra actividad de la misma índole. Estas actividades podrán celebrarse en el frontón municipal, pista polideportiva o centro de artes escénicas Sarobe siempre y cuando los espacios municipales estén libres, los objetivos de las actividades concuerden con la filosofía del espacio y siempre que se paguen las tarifas de utilización de esos espacios que se encuentre en vigor.

- **4.c. 7 días naturales** cuando se trate de solicitudes presentadas por los grupos políticos y plataformas electorales locales que se celebrarán siempre en las diferentes aulas de la Casa de Cultura Lekaio de lunes a viernes respetando los horarios de apertura y cierre del centro.

5.- Resolución.

Presentada la documentación requerida los técnicos competentes elevarán la propuesta de autorización a la Junta de Gobierno local

6.-Notificación.

La resolución adoptada será debidamente notificada a la persona física y / o jurídica que ha presentado la solicitud con un mínimo de 5 días naturales para las peticiones encuadradas en el apartado 4.a y de 20 días naturales para las actividades encuadradas en el subgrupo 4.b.

La resolución incluirá la **fianza** que deberá abonar el solicitante en el número de cuenta corriente establecido a tal efecto. La cuantía se determinará caso por caso atendiendo a la naturaleza y circunstancias (aforo del local, previsión de la gente...) del acto que se pretende desarrollar en el espacio público solicitado. También establecerá el régimen y condiciones de celebración del espectáculo, sus horarios, lugares etc.



Herriko talde politikoek eta hauteskunde plataformek eskaera aurkezteko egun gutxi dituztela kontuan hartuz, ahoz hitzartu ahal izango dira. Gero, Tokiko Gobernu Batzarraren hurrengo bilkuran emango da horien berri.

Atendiendo a la brevedad del plazo establecido para su presentación, las solicitudes presentadas por parte de los grupos políticos y plataformas electorales locales podrán ser resueltas oralmente. Posteriormente se dará cuenta de las mismas en la siguiente sesión de la Junta de Gobierno Local que se celebre-

7.- Ordutegia

- **LEKAIKO KULTUR ETXEA:** asteleheneretik ostiralera –biak barne–, 09:00-14:00 eta 16:00-21:00.
- 4.b. ataleko jarduerak antolatzeko, Sarobe eta kirol instalazioak erabili ahal izango dira asteburuetan, betiere araudi honen laugarren atalean ezarritako hiru baldintzak betetzen badira.

7.- Horario

- CASA DE CULTURA DE LEKAIKO;

De lunes a viernes – ambos inclusive- ; de 9,00 a 14,00 y de 16,00 a 21,00 horas.

- Para organizar actividades del apartado 4.b. podrán utilizarse el centro Sarobe y las instalaciones deportivas los fines de semana siempre y cuando se cumplan los tres requisitos establecidos en el cuarto apartado de esta normativa.

8.- Eginbeharrak ez betetzea.

Herriko organo eskudunak emandako baimenean ezarritako baldintza-eginbeharren bat betetzen ez bada, Udalak iritzira erabaki ahal izango du ipinitako bermea ez itzultzea, eta baita espazio horiek gehiago edo aldi baterako erabiltzen ez uztea ere, kasuaren larritasunaren arabera.

8.- Incumplimiento de obligaciones .

Ante el incumplimiento de cualquiera de las condiciones /obligaciones recogidas en la autorización emitida por el órgano local competente, el Ayuntamiento podrá discrecionalmente acordar la no devolución de la fianza consignada así como impedir la utilización de estos espacios, temporal o definitivamente según la gravedad de los casos.